

2. Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren fitxa teknikoa

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

**ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN
ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA**

HARTZAILEAK

Arrisku eta moldagabezia egoeran dauden adingabe eta gazteak, bereziki 11 eta 17 urte bitarteko aurrenerabe eta nerabeak; adingabe eta gazteen familiak; hezkuntza ez formaleko eta kulturako baliabide komunitarioak, eta, oro har, adingabeei edo gazteei zuzendutako hezkuntzako programak egin ditzaketen guztiak; zerbitzu sistemak; komunitatea orokorrean.

PROGRAMAREN XEDEA

Arrisku eta moldagabezia egoeran dauden Gipuzkoako adingabe eta gazteak normalizatutako inguru eta baliabideetan –herritar guztiei zuzendutakoak– eta baliabide egokituetan (bikote taldeak, familia, ikastetxea, lan merkatua, kalea, baliabide komunitarioak, e. a.) txertatu ahal izatea; hau da, eginkizun eta betebeharrak sozialak betetzeko gaitasunak, ezagupenak, jarrerak eta interesak garatzea herritartasun aktiboaren ikuspuntutik, eta, horretarako, inguruen egokitzapena eta adingabe eta gazteen autonomiaren garapena sustatzea.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

GIZARTE EKINTZAREN EREDUA / BALOREAK

Aniztasunaren balorea, ezberdintasunak errespetatzea. Kulturartekoa.

Pertsonaren, banakoaren, gutxiengoaren balorea.

Gizarteratzeko bideak dibertsifikatzea, esku hartzea pertsonalizatzea, "bezeroari orientabideak ematea".

Pertsona eta taldea erdigune gisa, proiektuetatik malgutasuna ematea erantzunei, e. a.

Gutxietsi edo baztertutako taldeak birbanatzea eta berauei lehentasuna ematea. Aukeretan berdintasuna izatea.

Demokrazian sakontzea, deszentralizazioa; erabiltzaileek, komunitateak, ..., proiektu edota programen diseinu, gauzatze eta ebaluaketan parte hartzea. Sentitutako, adierazitako, alderatutako eta normatiboak diren Premiak bereganatzea.

Kultura barneratzea eta kultura sortzea, gizarte eginkizunak ikastea eta dibertsifikatzea/aldatzea, bulkadak kontrolatzea eta bideratzea. Herritartasun aktiboa. Autonomia, autogestioa.

Bitartekotza, negoziazioa, esku hartzearen erdigune eta lan tresna gisa.

Normalizazioa, gizarteratzea, prebentzioa eta sustapena (zerbitzu sistemak eta baliabide "normalizatuak" hartzen dituen lana, herritar guztiei zuzendua). Gaitasun eredia.

Pertsonaren ahalmena bizitzan zehar ikasteko.

Moldagabezia eta ikuspegi aniztasun arazoen jatorri soziala. Biktima ez bihurtzea, "sorburuetara", baztertze egoera objektiboen aldetara orientatzea.

Departamentuen eta erakundeen arteko elkarlana, alderdi aniztasuna.

Hezkuntza denon erantzukizuna izatea, interesdunarengandik hasita.

Erantzunen hurbiltasuna eta osagarritasuna (elkartasun, boluntario, autolaguntza eta profesionalen berezko arauak).

Sareak antolatzea, talde erantzunak (lana taldeei zuzentzea).

Inguruaren garrantzia hezkuntzan.

Inguru ez formalek duten hezkuntzako ahalmen eta balioa.

Emakumeari laguntzea, maila lokaleko enplegua sortzea, ingurugiroa hobetzea.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

ERAGINA

Larrialdietarako etxebizitzak erabiltzea azken bi urteetan.
Larrialdietarako etxebizitzak erabiltzea azken bi urteetan (emakumeak adingabe eta gazteekin).
Familia heziketa edota terapiako programetan partehartzea azken bi urteetan.
Familia heziketa edota terapiako programetan partehartzea azken bi urteetan (familiak edo bizikidetza unitateak (adingabe eta gazteekin).
Gazteen enplegu/langabezi tasa eta maiztasuna (16-29 urte bitartekoak).
Drogen kontsumoa (tabakoa, alkohola eta droga ilegalak) 11 eta 17 urte bitartekoen artean.
Instituzionalizatutako anai-arrebak (azken bi urteetan).
Instituzionalizatutako familia nukleoko kideak (azken bi urteetan).
Etxebizitzaren baldintzak (higiene eta segurtasuneko baldintzak, konponketak, oinarrizko ekipamendua – erabilgarritasuna eta funtzionamendua-).
Ama edo aita familian egotea/aldentzea (bizikidea denean).
Familia edo bizikidetza unitatearen harreman sarea (zabalkuntza, eredu baikorreko irudiak eta laguntza figurak egotea/ez egotea).
Tratu txar edo fisikoki zein emozionalki abandonatze zantzuak (adingabeak eta gazteak).
Sexu abusuen zantzuak (adingabeak eta gazteak).
Esplotazioaren zantzuak lanean (adingabeak eta gazteak).
Adingabeen Epaitegian espediente irekia izatea azken bi urteetan (adingabeak eta gazteak).
Erakundeetako zentroetan sartzea (adingabeak eta gazteak).
Enplegua/langabezia azken bi urteetan (prestakuntzan ari ez diren 15 urtetik gorakoak).
Arreta eskaeren eta maila lokaleko (familiak) arreta sistemen arteko maiztasun eta egokitzen gradua.
Eskolako errendimendua
Hezkuntza maila (adingabeak eta gazteak).
Emakumeari laguntzea, maila lokaleko enplegua sortzea, ingurugiroa hobetzea.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK (helburua / “arazoari edo arazoei” lotuta)
A.1. Normalizatutako eta egokitutako inguruneetan, ezagupenak, gaitasunak, jarrerak eta interesak –orokorrak eta espezifikoak– transferitzea, orokortzea eta garatzea. A.2. Normalizatutako eta egokitutako inguruneetan parte hartzea	(Hipotesiei lotutako helburu guztiak –ekintza eskaintzaren barruan-, inguruneetan erabilia eta urtebeteko jarraipena eginda). Eta, horrez gain, Adingabe edo gaztearen garapen eta portaera egokiak hautematea (ingurunea)
A.2.1. Familia dinamika baikorrean parte hartzea	Familiari eskainitako denbora luzatzea, eta harekin burututako ekintzak dibertsifikatzea Zaintzaile nagusiek jarritako ordutegiak errespetatzea Ettxeko lanetan parte hartzea
A.2.2. Herritar guztiei zuzendutako hezkuntzako baliabide formaletan, arautu eta ez arautuetan, alde batetik, eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitutako baliabide espezifikoetan, bestetik, parte hartzea	Ikastetxera joatea Ikastetxeko jardueretara puntual iristea Etixerako lanak egitea
A.2.3. Lan aurreko eskarmentua eskuratzea	Prestakuntzarekin jarraitzea edo lan aurreko eskarmentuaren bitartez enplegua eskuratzea Motibazioa garatzea eta lana bilatzen trebetasuna lortzea Lan aurreko jarduerarekin zerikusia duten gaitasun espezifikoak eta orokorrak eskuratzea (puntuala, ordenatua,..., izateko ohitura, eta komunikatzeko eta harremanetan sartzeko gaitasuna)
A.2.4. Harremanetako sare informal, baikor, eta zabaletan parte hartzea.	Harremanetako sare iraunkorra, zabala eta egokia garatzea (adin bereko lagunak) Astialdiko ekintza baikorrak egitea lagunekin
A.2.5. Herritar guztiei zuzendutako eta arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitutako hezkuntzako baliabide ez formal eta soziokulturaletan parte hartzea	Astialdiko ekintza antolatuetan parte hartzea Autogestio proiektuetan inplikatzeko (antolatzea, inplikatzeko, gestionatzea, urtebete igaro ondoren taldean irautea)
A.2.6. Adingabe/gazte inguruneen harremanak hobetzea (inguru guztietarako)	Adingabe edo gaztearen proposamen baikorrak onartzea eta ezkorrei uko egitea (ingurunea) Adingabe/gazte inguruneen komunikazioa hobetzea Eredu baikorreko irudiekin loturak garatzea (adingabea/gaztea) Adingabe edo gaztearen harreman sarea zabaltzea (ingurunearen barruan)
A.2.7. Adingabe/gazte ingurunearen pertzepzioa hobetzea (inguru guztietarako)	Adingabearen pertzepzioa hobetzea eta betebeharrak ematea (ingurunea) Portaeraren pertzepzio erreala izatea ingurunean (adingabea/gaztea) Ingurunearen pertzepzioa hobetzea (adingabea/gaztea)

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

HELBURU ESPEZIFIKOAK	BITARTEKO HELBURUAK
B.1. Gizarteratzeko ezagupenak eta gaitasuna eskuratzea, eta oinarritzko jarrera eta interesak garatzea, kaleko hezitzaileen eskaintzaren ingurunean B.2. Adingabe eta gazteek bizi izandako arrisku egoerei behar bezalako erantzunak ematea (komunitatea) B.3. Familiak ikastetxearekin eta komunitatearekin dituen harremanak hobetzea	B.1.1. Era autonomoan, nahikoa informazio garrantzitsua eskuratzea B.1.2. Autoestimua, oinarritzko ohiturak, harremanetarako trebetasuna eta bestelako ezagupen, gaitasun eta jarrera transferigarriak garatzea B.1.3. Ezagupenak, gaitasunak eta jarrera espezifikoak lortzea, eskola barruko aprobetxamendua norberaren ahalbideei egokitzea B.1.4. Ezagupenak, gaitasunak eta jarrera espezifikoak lortzea, astialdiko jardueretan parte hartzea B.2.1. Ingurune/baliabideak edo jadanik dauden hezkuntzako programak arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteen ezaugarriei egokitzea, edo egokitutako baliabide edo programak sortzea B.2.2. Bazterte sozial eta desabantaileri buruz sentsibilizatzea (komunitatea orokorrean, azpitalde espezifikoak eta baliabide komunitarioak) B.3.1. Familia eta eskolaren arteko harremanak hobetzea B.3.2. Familia eta komunitatearen arteko harremanak hobetzea
ZERBITZU UNITATEAK/ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK¹	PROIEKTUAK/EMAITZAK
- Informazioa, orientazioa eta deribatzea - Hezkuntza espezializatua (banakako eta taldekako eskuartzea) - Lan komunitarioa (sustatze eta lankidetzak sozialak)	- Informatzeko elkarriketak - Orientatzeko elkarriketak - Gizarte zerbitzuen sistema eta beste zerbitzu sistema batzuetako baliabideetara deribatzea - Informazio eta orientazio proiektuak ² Aldi baterako berezko eskaintza: - Banakako hezkuntzako eskuartzea - Taldekako hezkuntzako eskuartzea: - Prestakuntzako jarduerak - Kultur zabalkuntza eta sorkuntzako jarduerak: - Lurraldea, kultura, usadio eta ohiturak ezagutzea - Arte adierazpeneko jarduerak - Jolas jarduerak - Udalekuak, kanpamentuak, trukeak - Kirol jarduerak - Ingurugiroko jarduerak - Belaunaldien arteko jarduerak - Beste tailer batzuk - Igarotzeko proiektuak (baliabideak sortzea eta egokitzea) - Komunitatea sentsibilizatzeko proiektuak

¹ Berriro ere ohartu, kaleko hezitzaileek esku hartzea sar daitekeela informazio, balorazio eta orientazio, sustatze eta lankidetzak sozial, eta (udal bakoitzak programa bakoitzari eman dion edukiaren arabera) prebentzio eta gizarteratze, eta familia eta elkarbizitza programen barruan.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

ZEIN ALORRETAN GARATZEKO PROGRAMA DA? Ingurune irekia: • Kalea • Bizilekua • Hezkuntzako ekipamenduak eta soziokulturalak, formalak eta ez formalak, publikoak eta pribatuak irabazteko asmorik gabe • Hezkuntzako programak garatzen dituzten beste zerbitzu sistema batzuetako beste baliabide batzuk (anbulatorioa,...)	ESKU HARTZEKO PROZESUA • Premiak eta baliabideak baloratzea –komunitatea aztertzea- (lau urtean behin, eta gutxienez hiru hilabeteko erabateko arduraldia) • Udal Programa garatzeko Plana diseinatzea (bi urtean behin) • Hasierako banakako eta taldekako ebaluaketa • Informazioa, orientazioa eta deribatzea • Banakako edota taldekako eskuartzearen diseinua (programazioa, ebaluaketa diseinatzea) • Programatutako ekintzak garatzea: • Banaka edota taldeka hezkuntzan esku hartzea • Banakako eta taldekako eskuartzeak baloratzea • informazioa, orientazioa eta bideratzea • Normalizatutako baliabideetara edo autogestio proiektuetara igarotzea • Inguruneetan txertatzearen ebaluaketa • jarraipena • ixtea • Premiak eta baliabideak ebaluatzea (bi urtean behin) eta ebaluaketen sintesia (lau urtean behin)
GIZA BALIABIDEAK A) PROGRAMARENAK • Kontsortzioko Gobernu Batzordea osatzen dutenak • Gizarte ongizate, kultura eta hezkuntza arloetako zinegotziak • Kontsortzioko gerentea • Udal programen arduradunak (udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamenduko buruak) • Kontsortzioa osatzen duten departamentuetako teknikari kolaboratzaileak • Programaren koordinatzailea • Oinarrizko Unitateetako arduradunak • Gizarte langileak • Kaleko hezitzaileak (egun erdiz eta egun osoz) • Drogamenpekotasunak prebenitzeko teknikaria • Boluntarioak • Unea uneko beste kolaboratzaile batzuk • (Hezitzaileak eta familia terapeutak) • (Etxez etxeko laguntzaileak –badago bizikidetzaren unitateko adingabeei zuzendutako eskuartzea, baina oso eskasa da-)	BALIABIDE MATERIALAK ETA EKONOMIKOAK Baliabide ekonomikoak • Programaren aurrekontu orokorra: 56 milioi Baliabide materialak (udal ekarpena) • Barne lanerako tokia eta ekintzetarako lokala taldearentzat • Material suntsigarria (bulegoko materiala) • Jardueretarako materiala (kiroletarako, jolaserako)

² Informatzeko eta orientatzeko ekintzak banakako eta taldekako proiektuen barruan ere egiten dira.

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

B) BESTE ZERBITZU SISTEMA BATZUETAKOAK • Udaleko Kultur Departamentuko profesionalak • Gizarte eta hezkuntzako baliabide eta baliabide soziokultural ez formaletako profesionalak eta boluntarioak • Ikastetxeetako profesionalak (zuzendaria, tutorea, aholkulariak) eta eskualdeko Pedagogi Aholkularitza Taldekoak (PAT) (Gizarte egokitzapenerako teknikaria) • Hezkuntzako programetan, prebentzio komunitarioan, lanean ari diren anbulatorioko profesionalak	
--	--

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

PROGRAMA, ERAKUNDEEN MENDEKOA	KALEKO HEZITZAILEAK KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETAN SARTZEA, EGINKIZUNEN ARABERA
Lurralde historiko mailan, Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioaren mende dago (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila -50%- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza eta Gazteria, Kirol eta Kultura Departamentuak - 50%). Kontsortzioa Gobernu Batzordeak, gerenteak, Kontsortzioko departamentuetako teknikariak osatutako Batzorde Teknikoak eta Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren koordinatzaile batek osatzen dute. Maila lokalean (kasu guztietan udalerrietan, oraingoz) programa hartzen duen udal departamentuaren mende dago (eskuarki Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren mende eta, batzuetan, Kultura edo Hezkuntza Departamentuen mende). Epe luzean, Kontsortzioak duenaren antzeko egitura garatzea nahi dugu (departamentu berek osaturik, eta alderdi politikoa eta teknikoa duena) maila lokalean; baita ere, Inguru Irekiko Hezkuntzako Udal Plana funtzionaliki haren mende egotea. Helburu hori kontuan hartuta, ez dago inolako oztoporik Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa, udalerrietan, Kontsortzioko edozein departamentu kidek bere gain har dezan. Kontsortzioak bere gain hartuko ditu kaleko hezitzaileak kontratatzeko eta ekintzak egiteko gastuetako batzuk. Horrez gain, programaren deialdi publikoa egingo du, udalerri eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei zuzendua. Programa ezarri nahi duten udalerrietako ekintzak Kontsortzioko programa ereduaren eta lurralde historikoko garapen planean (kudeaketa plana) ezarritako parametroen barruan egingo dira. Langileek eta ekintzek sortutako gastuetan parte hartuko dute udalerriek, Kontsortzioari emandako diru laguntzaren bitartez. Epe laburrean, udalak Gobernu Batzordean, eta maila lokaleko programetako arduradunak Batzorde Teknikoko bileretan (Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programari buruzkoetan) sar litezke. Halaber, Osakidetza Kontsortzioan parte hartzea ere aztertu nahi dugu (lehen mailako arreta).	Kaleko hezitzaileak komunitateko gizarte zerbitzuen barruan egongo dira beren eginkizunen arabera, programa bere gain hartzen duen udal departamentua zein den ere. Hori horrela antolatu da, kaleko hezitzaileek egiten duten lanaren helburua aintzat hartuta: arrisku egoeran dauden adingabe eta gazteak normalizatutako eta egokitutako inguruneetan txertatzea, alegia. Helburua eta hezitzaileak lan egiten dueneko herria (baztertze edota desabantaila egoeran) eta komunitateko gizarte zerbitzuetakoak bat datoz. Hezkuntza, lana, etxebizitza, kultura, osasuna, e. a. lortzeko aukeratzat hartuta, gizarteratzea gainerako zerbitzu sistema, maila guztiz zabaleko gizarte politika eta gizarte eragilean ardura da. Baztertutako pertsonak eta taldeak gizarteratzeko erantzukizuna gizarte zerbitzuen sistema eta gainerako zerbitzu sistemen ardura da. Komunitateko gizarte zerbitzuetako langileek erabiltzaileak informatu, orientatu eta deribatu egiten dituzte; autonomia lortzeko euskarriak (diru laguntzak, elkarbizitzako hautabideak), gehienetan iragankorrak, ematen dituzte; erabiltzaileen hezkuntzaz eta birgaitzeaz arduratzen dira; bitartekotzako ekintzak eta normalizatutako eta egokitutako baliabideak garatzen dituzte, eta komunitatea sentsibilizatzen dute. Kaleko hezitzaileek zeharkako lana egiten dute, komunitateko gizarte zerbitzuetako berezko arreta dimentsioei dagokienez (lau programa); adingabe, gazte eta inguruneen emandako arreta jarraitu hori beste profesional batzuekin batera egiten dute. Arrisku egoeran dauden familia eta adingabeei zuzendutako eskuartzeak arretako alor guztiak hartzen ditu, euskarri ekonomikoak (Gizarteratzeko Gutxienezko Diru Sarrera (GGDS), Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL),...) eta elkarbizitzako hautabideak barne. Epe labur/ertainean, kaleko hezitzaileen eginkizunak komunitateko gizarte zerbitzuetan indartu nahi ditugu.